



ATAUNGO UDALA



SAN ISIDRO EGUNA SAN MARTIN AUZOAN

Maiatzaren 15ean (astelehena) izango da San Isidro eguna. Dakizuen bezala, hiru auzoetan txandaka ospatzen dugu, eta aurten San Martinen tokatzen da. Plaza inguruan izango da, eta egitarau hauxe da prestatu dugu:

- **11:00etan** irekiko da herriko produktuen erakusketa; barazkiak, landareak, zizak eta abar ikusteko aukeraz gain, herriko artzainen gazta eskainiko da probatzeko.
- **14:00etan** bazkaria izango da Aizkoate Elkartearen, bertako produktuekin: haragi-zopa, pikatxa, arkumea, mamia, kafea eta kopa.

Bazkarirako txartelak salgai egongo dira **25 euroan**, **Troskaeta**, **Urbietan** eta **Sutegi** tabernetan. Erosteke azken eguna: **maiatzak 7**.

HERRIKO PRODUKTUEN ERAKUSKETA

- Edozein herritarrek jarri ahal izango du postua herrian bertan landutako produktuak erakusteko.
- Barazki-postua jartzen dutenei diru-sari bat eta bazkarirako txartela emango zaizkie.
- Gazta, ziza eta antzekoen postua jartzen dutenei bazkarirako txartela emango zaie.
- Gazta aurkeztu nahi duten artzainek udaletxera deitu beharko dute (943180011) maiatzaren 5a baino lehen.
- Postua jartzeko izena eman beharko da udaletxean. Azken eguna: **maiatzaren 5a**.

Ataunen, 2023ko apirilaren 18an.